

ZUMAIAN ZER GERTATZEN DEN KONTATZEN DUEN HILABETEKARIA

bokeike

2003ko AZAROA,
116. ZENB. DOHAINIK



Hurrengoa noiz da?

U T O P I A K A U R R E R A E G I T E K O B A L I O D I G U

Urteko azken aurreko Baleike daukazu eskue-tan. Urtea oraintxe hasi zelakoan eta, kontura-tzerako Gabonetan pentsatzen. Azkarregi eta presaka bizi garen seinale.

Gure bizitzeko modu azkarra gelditu, eta irakurtzeko tarte lasai eta zabala hartzea ez da aukera txarra. Horixe eskaini nahi dizugu. Azaroko zenbakian gai asko jorratu ditugu. Nonbaitetik hasteagatik, ze



berri ataleko kontu batzuk aurreratu-ko dizkizugu. Julene Azpeitia ipuin lehiaketak 15 urte bete dituela- eta, saritu guztien ipuinekin egin duten liburu-bildumaren berri izango duzu. Baita Natur Taldeak antolatuta duen perretxiko astearen berri ere.



Jardunian aritzeko Alaitz Larrañaga, AEK-ko irakasle berria gonbidatu dugu.

Musika Eskolaren nondik norakoak ezagutu ahal izango dituzu *ur haunditan* sartuta.

Izerdi patsetan Iñaki Osa Goikoetxea eta Gotzon Enbilek irabazitako Zesta- Puntako Munduko Txapelketa ezin ahaztu.



Ze letuan kontakizun ederraz gozatu duzue, eta *ze ikusiyan* bi filmen berri izango duzue.

Labur-labur esanda, hauek eta beste kontu asko aipatu ditugu azaroko Baleiken. Zuek lasai eta patxaraz irakurri. Gu, bitartean, urteko azkeneko Baleike prestatzen hasiko gara. Zeinen azkar joaten den urtea!!



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Belen
Golmaio, Ixiar eta Estitxu
Eizagirre, Karmelo Arroiababe,
Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon
Aizpurua
Izaga Garzia,
Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza
Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco
Aitor Leiza
(Aste mikologikoko
argazkiak)

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

"EZ IZAN ZALANTZARIK, BIRZIKLATU"

Urola Kostako Udal Elkarteak

Urola Kostako Udal Elkartearen hiri hondakinen gaineko heziketa eta informazio kanpaina.

Urola Kostako Udal Elkarteak "Hiri Hondakinen gaineko heziketa eta informazio kanpaina" jarriko du martxan azaroan. Urola Kostako Udal Elkarteak Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia udalerriek osatzen duten erakunde publikoa da, guztira 38.620 herritar biltzen dituena.

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusiak ondokoak dira:

- Papera, kartoia, beira, ontzi arinak, eta abar gaika biltzea.
 - Garbigunea sustatzea.
 - Urtetako zabortegi kontrolatuan hiri hondakinak tratatzea.
 - Herritarrei aholkularitza zerbitzua eskaintzea.
 - Eskoletako programak bideratu eta ingurumenarekin lotutako beste hainbat ekimen martxan jartzea.
- Helburu horiek guztiak lortzeko,

Urola Kostako Udal Elkarteak, Arazo Ingurugiro Zerbitzuak Koop. Elkartearekin elkarlanean, hiri hondakinei buruzko informazio eta heziketa kanpaina bat burutuko du eskualdean azaroa eta abenduan zehar.

"EZ IZAN ZALANTZARIK, BIRZIKLATU" kanpainaren ardatz nagusiak ondorengo puntutan laburbildu daitezke:

1. Eskualdeko ikastetxeetan "Hiri hondakinen gaineko ingurumen hezikuntzako kanpaina": Kanpaina honen helburu nagusia kontsumo arduratsua sustatzea da eta horretarako ekintza ezberdinak antolatuko dira: Urtetako zabortegira eta Zarauzko Garbigunera bisitak, lehiaketa bat, eta abar.

2. Eskualdeko etxe guztietara "Urola Kostako Udal Elkartearen birziklapen gidaliburua" iritsiko da. Gida honetan, edukiontzi bakoitzera zer bota behar den eta zer ez azaltzeaz gain, hainbat eta hainbat datu interesgarri agertzen

dira: Garbigunearen eta zabortegiaren funtzionamendua, birziklatze ratioak, eta abar.

Gida honen irudi berdinarekin, bost udalerrietako kaleetan hainbat kartel ikusi ahal izango dira.

3. Bisita gidatuak Urteta zabortegira eta Zarauzko Garbigunera.

Lehendabiziko bisita, azaroaren 8an, larunbata, burutuko da. Bisita hau, goizeko 10:00tan izango da eta Garbigunean hasiko da. Interesa duen edonor hurbildu daiteke ordu horretan Zarauzko Garbigunera.

Kanpaina honen helburua Urola Kosta eskualdeko herritarrei hiri hondakinen berri ematea da, jakin dezaten eskura zer-nolako baliabideak dituzten eta parte har dezaten eskualdearen bizi kalitatea hobetzen.

"Guztiok dugu ingurumen osasuntsu batean bizitzeko eskubidea, baina baita ingurumen hau egoki kontserbatzeko betebeharra ere".

Zer da normalizazioa?

AZKEN ALDI HONETAN hainbat euskaldunen gaztelania zeinfrantsesarekiko leialtasun inportagabea justifikatzerakoan "Ni mundukoa sentitzen naiz eta" horrenbestetan entzun eta gero, euskara ilargikoa otezen sinesten hasia nintzen. Lehengo batean, ordea, Erribera kaleko elektrizitate denda bateko faktura-euskaraz jaso nuen, barruko poz txikiak fakturatolestu eta aldameneko tabernak eguneko menua euskaraziragartzen zuela konturatu nintzen. Begiak zabal-zabalireki, eta berriro begiratu nion sarrerako atearenondoko arbeltxoari, eta txukun idatzita zegoengainera! Gero, belar-denda baten aurrean, berriroantzeko arbeltxoan bertako zerbitzuak euskaraz eskaintzen zirela ikusi nuen. Eguneko azken mandatuagigitera janari-denda ireki berrira sartu nintzen, etaberrirori dena euskaraz, normal-normal! "Ez da posible, Neure artean" Azkenean munduko toki gehienetan bezala, hemen ere bertako hizkuntzan harro/tonto konplexurik gabe bizi ahal dugu! NORMALIZAZIOA etorri zaigu eta ez naiz enteratu! Eta berriro gogoeta egin nuen ikusitakoak balio sinbo-

liko hutsez eginak ziren alabalia komunikatiborik bazuten. Hau da, "tipo Carniceria Bengoetxea harategia, con medio kilo de picadillo regalo de una botella de patxararan" (horibai, txurigorri-berdez!) ote zen ala tipo Gomezfrutategia, melokotoiak eta tomateak erdi prezioan?" Ametsetan nengoela zirudien, hain gauza simple, justueta duinaz ametsetan... Janari-dendakoek ordea, errealitate gordinera ekarri ninduten. Ireki etaberehala baten batek denda hori "Solo para vascos" otezen modu txarrez leporatu omen zien, muturreko aurrean "Platanoak" zioen txartelari begira. Zein jarrera daitxia, burukarratua, intolerantea, inposatzailea eta munduari beharrean beti zilborrari begira dagoena? Nolako izan beharko luke konplexurik gabeko euskaldunkosmopolitaren jarrera normala?



Josefran Ispizua

Ilusio ekaiztsuak

ABIATU AURRETIK, kolore zuriko ilusioz gainezka irudika ditzaket. Ametsak jota, egunak irrikaz kontatzen ibiliko dira ziu-raski. Baita itsasoaren beste aldean omen dagoen paradisua aldeztetik ordaindu ahal izateko falta zaien dirutza ere. Izerdi usaina eta malko tantak sumatzen dira esperantzaz moztortutako etorkizunean, garestia, garestiegia baita itsasoaren promesa.

Baina, segurutik, itsasoaren promesa uste baino garestiagoa dela jakin gabe itsasoratuko dira, azkenean, izerdi eta malkoz bustitako ilusioak, oraindik ere zuri koloreko ilusioak, esperantzaz moztortutako etorkizunaren bila olatu artean. Oraindik ere ametsak jota.

Ez dago, ordea, behar beste tokirik; metro koadro gutxiegia eta ilusio gehiegia. Bakoitzak bereari eustsiko dio gogor, norberaren izerdi usaina eta malko tantak salbatu nahian. Esperantzaz moztortutako etorkizuna urruti dago, uste baino urrutia-

go. Eta, ilusioak gogor astinduz, itsasoa bere promesa garestitzen hasiko da bat-batean. Kolore zuriko ilusioak belzten hasiko dira orduan, ekaiztsu bihurtu arte.

Azkenean, amets egarritz itoko dituzte. Itotzen dituzte. Bitartean, itsasoaren beste aldean omen dagoen paradisua aldeztetik ordaindu ahal izateko falta zaien izerdia eta malkoak kontatzen hasi dira. Berriz ere, kolore zuriko ilusioz gainezka irudika ditzaket. Ametsak jota. Itsasoaren promesa uste baino garestiagoa dela jakin gabe. Etorkizuna esperantzaz moztortuta dagoela sumatu gabe.



Eguzki Agirrezabalaga



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Gorka



Gorka Ormazuri

Udazkenak etxera bidaltzen gaitu (euria eta haizea batera ez dira sahiesterrazak, ez horixe) eta etxean zer egin leiho garbitu berriak euriak astintzen dituenen? Telebista piztu

eta zeozertan hasi. Halaxe dira-eta kontuak, argia piztu baino lehen jartzen dugu telebista martxan nahiz eta gero beste gela batera joan; eta ez hori bakarrik, etxea bera ere telebistaren presentziak antolatzen du: zer da egongelaren antolaketa erabakitzen duena?. Ai, ama! Hain gaizki hitz egin berari buruz eta gure bizitzako ardatza dela konturatu. Orain, egongela ez ezik, gelak, sukaldia eta, laster, komuna ere inbadituko ditu eta, gainera, ez zaio mugarik ezagutzen.

Kontua ez da, ordea, hor bukatzen. Etxe barruko boterea telebistaren mandoan dagoenetik, famili borroka handienak mandoaren jabetzaren inguruan izaten dira eta okerreana da luzera aurkituko diozun soluzio bakarra beste telebista bat erostea izango dela, zeure gelan jartzeko. Ederki gabilza!.

Zer egin egoera honen aurrean? Etxeko txoko goxoenean eseri, mantatxoa gainean eta pikatzeko zeozer hartu eta ...Zap! Zap! Hasi mandoari ematen ea dena ahazten zaizun.

Estitxu

Estitxu Eizagirre



Gurasoen etxetik gurera atera ginenean, telebistarik ez genuen. Geure buruari agindu genion ez genuela horretan dirurik botako, bagenuela behar premiazoagorik (koltxoia eta makarroiak, laburbilduz). Denbora gutxian, bi telebista ekarri zizkiguten lagunek: batek 15 urte zituen eta besteak 20. Lehena, txuri-beltzean ikusten zen. Mandoa galanta zeukan, kilo erdikoa. Baina alper-alperrik: tele5 bakarrik ikusten zen! Bigarrenak, mandorik ez, baina kate gehientsuenak bai. Koloretan gainera, aizue! Baina daltonikoa zen telebista gajoa. Errealaren zelai berdea gorri ikusten zen. Modeloen ezpain gordinak, urdin-konjelatuta. Eta itsaso urdina, zelai berde zen. A ze parrak egiten genituen! "Egin apustu, gorri ala urdin!" Eguzkitzek. Eta berak "Olaizola gorritz" esanagatik, guretzat urdin jantzita zegoen hura. Konpresen iragarkietako likido urdinak muki berdea zirudien. Eta tomate "Orlando" k jateko modukoa ez zen kolore morea zuen. Geroztik telebista berri bat etorri da gure etxera. Telefono mugikorrek bezala, erosi gabe ere oparitu egiten dituzte gaur egun txisme horiek. Zerbaitegatik izango da. Baina orain, bi modutara ikusten dugu telebista. Hain dibertigarri zen kolore-eskala perbertitua etortzen baizaigu burura: "Simpson orain horia da. Lehen zer kolore zuen, Nagore?", "Berenjena kolorea", berak. Beti bukatzen dugu esanez, oraingo telebistari ere koloreak aldatu behar dizkiogula, bistarentzat edo mundu ikuskerarentzat mesede dela. Koloreak esanahiz beteta baitaude. Zergatik dira, bada, azafaten soinekoak beti rojo-ke-te-kojoak? Zergatik dira komoneko paperaren iragarkiak urdinak? Zergatik dira beltzak luxuzko kotxeak, eta gorriak gazteentzako deportiboak? Zer usain dute koloreek, Ixiar?

Ixiar

Ixiar Eizagirre



Koloretan flipatzen jarri nau galderak. A zer marroia bota didazuna (eta ez dut detaileetan zehaztuko marroiaren usaina...). Kolore oloreak asko dira, eta marketingean burmuinak seduzitzen adituak diren publizistek ondo ezagutzen dute bakoitza. Gorriak larrosa usaina du, larrosak afrodisiakoak dira, desenfrenoa pizten dute; desenfreno horregatik kotxe gorriko gazteekin ez dute traturik nahi aseguru etxeek. Moreak odolbildu usaina du, emakume askoren begitan. Zuria perfume merkearen kiratsekoa da, faltua, itsurak egitearena, altarean sabel beteak soineko zuri

birginaren forma hartzen duenean. Beltzari dolar usaina dario esmokinetan, dolar usaina petroleo putzutun; beltzak miserable usaina du zuriek jastzen dutenean, eta miseria usaina azalean eramaten denean. Eta kolore perfektuena, dena eta ezereza biltzen duena, "inkoloroa" da: hilabete bukaerako zopa inkoloroak gabezia usaina du, ezerezaren lurrina. Baina zopa "inkoloro" horretatik, ezerezetik, bizitza sortzen da, kazuela hilabetetan hozkailuan ahaztuta eduki eta zopari onddoak, germenak, izaki likatsuak sortu zaizkiola aurkitzen dugunean.

15 urte, 41 ipuin eta liburu bat

Julene Azpeitia ipuin lehiaketak hamabost urte betetzen dituela-eta, ekitaldi horietan guztietan sarituta-ko berrogeita bat ipuinak liburu batean argitaratu ditu Zumaia-ko Udalak

1988an ekin zitzaion ipuin lehiaketari. Orduan ez zuten asko uste gaur egun duen sona izango zuenik. Urteak pilatu ahala, saritutako ipuinen kopuruak gora egin du. Hori kontuan izanda, eta lehiaketa hasi zela hamabost urte betetzen direnez, Zumaia-ko Udalak liburu batean bildu ditu lehiaketak saritu dituen ipuin guztiak. Idazle ezagunen lanak daude liburuan. Batzuk aipatzearren: Arantxa Iturbe, Juan Luis Zabala, Edorta Jimenez, Karlos Linazisoro, Felipe Juaristi, Hasier Etxeberria... Horien guztien ipuinak irakurtzeko aukera dago liburuan.

Zumaiarren lanak ere jaso dituzte liburuan. Jakina da, zumaiarren artean ipuin onena idazten duenak aparteko saria izaten duela. Liburuan dira Ane Miren, Imanol eta Xabier Azkue anai-arreben ipuinak, Joseba Ossarenak, Josu Waliñorenak, Dani Carballorenak, eta Enara Azkuerena, besteak beste. Horietako batzuek lehiaketa bera ere irabazi izan dute, gainera.



Liburua Zumaia-ko ikastetxeetan banatuko dute, DBHko ikasleei, hain zuzen. Durangoko Azokan ere salgai izango da, eta horretaz Zabaltzen arduratuko da.

Aurtengo lehiaketa

Guztira 23 ipuin aurkeztu dituzte aurtengoan. Horietako 4 zumaiarrenak dira. Iaz 25 aurkeztu ziren, 7 zumaiarrak. Irabazleak nortzuk diren abenduaren hasieran jakingo dugu. Bitartean, 15 urteko ibilbidean saritutako ipuinak irakurtzea ez da aukera txarra.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net




Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Perretxiko festa

Zumaiako Natur Taldeak antolatuta, urriko azken asteburuan egin zen aurtengo PERRETXXIKO ASTEA. Hitzaldia, irteera, afaria, erakusketa... eta dena perretxikoen jiran. Argazki ugari ateratzeko aitzakia paregabea.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, 25
TEL: 943 885369

Zozketa urte bukaerarako

Puntanuetan etxea tokatu zitzaizene-
nek zalantza asko dituzte oraindik:
nolako etxebizitza tokatuko zaie? Bi
gelakoa edo hirukoa? Eta zein solai-
rutan?

Urtea bukatzerako egingo dute zalan-
tza horiek guztiak argituko dituen
zozketa. Ziurrenik abenduan izango
dela esan digute Zumaia Lantzen-
ekoei. Jendea urduri samar dago
nolako etxebizitza tokatuko zaien
zain. Bi gelakoak eta hirukoak dira
etxeak. Gehienek hirukoak nahiko
dituzte. Ez da giro izango zozketa
egunean.

Etxeak egiteko lanak oso ondo
omen doaz. Aurreratuta ere badabil-
tzala esan digute. Gogoratu, orain-
goz, zortzi bloke egiten ari direla. Sei
babes ofizialekoak dira, eta bi tasatu-
takoak.

Nolako etxebizitza tokatuko zaien
horiek baino zalantza handiagoa
dutenak badira, hala ere. Zenbait jen-
dek oraindik ez daki Eusko Jaurlari-
tzak etxea emateko eskatzen dituen
baldintzak onartuak izango diren.

Datu horiek Zumaia Lantzen-en esku
daude. Eusko Jaurlaritzak nahi due-
nean eska ditzake etxea tokatu zitzaie-
nen datuak. Behin zozketa eginda,
oraindik datuak eskatu ez baditu,

Zumaia Lantzen-ek berak eman
beharko dizkio Eusko Jaurlaritzari.

Kontu asko, beraz, erabakitzeke.
Berandu baino lehen argituko dira,
hala ere, zalantza horiek guztiak.



EBk desobedientziarako proposamena

Ezker Batuak desobedientzia propo-
satuko du etorkinen aurkako neu-
rriei aurre egiteko

Biztanleen erroldako datuak Barne
Ministerioari ez emateko eskatuko dio
Zumaiako Udaleri

Mozioa ordezkariak duen herri
eta hiri guztietan aurkeztekoak dira,
eta gure herrian azaroko azken oste-

gunean egingo den plenoan aurkez-
tuko du Kristina Forcada zinego-
tziak. Mozio horrekin Barne Minis-
terioak etorkinen berri jakiteko duen
bide bakarra eragotzi nahi du Ezker
Batuak. Biztanle erroldaren bitartez,
herrian "legeztatuta" daudenak nor-
tzuk diren jakin dezake Espainiako
Gobernuak. Baita "legeztatuak" ez
direnak zein diren ere. Behin hori

jakinda, etorkinekin nahi dutena egi-
teko aukera daukate. Jatorrizko
herrialdeetara itzultzea izaten da,
gehien-gehienetan, Espainiako Go-
barnuak hartzen duen neurria. Hori
galarazi nahi du Ezker Batuak.
Alderdi horren ustez, Giza Eskubi-
deen Adierazpen Unibertsalaren aur-
kako neurriak dira etorkinekin har-
tzen ari direnak.

Zumaiako leku-izenak jaso eta aztertze beka


Abenduaren 15a bitarteko epea dago beka eskuratzeko eskabideak aurkezteko

Leku-izenena edo toponimiarena gai aberatsa da. Herri guztietan hitzetik hortzera erabiltzen dira herriko lekuen izenak. Eguneroko kontua da hori. Hala ere, izen batzuk galduta daude edo galtzeko zorian. Beste batzuk, berriz, urteen poderioz aldatu egin dira. Aspaldiko izena gordetzen dutenak ere badira. Zumaian, beste bazter guztietan bezala, bilakaera hori izan dute leku-izenek.

Gure herriko toponimia bildu eta aztertu beharko du beka eskuratuko duenak. Hori egin baino lehen, ordea,

bea jasotzeko eskabideak aurkeztu behar dira. Horretarako epea abenduaren 15ean bukatuko da. Eskabide guztiak jaso ondoren, epaimahaiak erabakiko du beka nori edo nortzuei eman. Epaimahaian izango direnak hauek dira: euskara batzordeko lehendakaria; batzordekideak; euskara teknikaria; eta Euskaltzaindiako Onomastika batzordeko bi kide.

Beka egin beharko duenak edo dutenek urtebeteko epea izango dute, eta bekaren balioa, dirutan, 7.215 eurokoa da.



Zumaian ere EHNA egiteko aukera

Euskal nortasuna adierazteko beste modu bat izango dugu gure herrian

Jakinarazi digutenez, abendutik aurrera zumaiaarrok ere aukera izango dugu Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (euskal karneta) egiteko. Abenduaren 13ko eta 14ko asteburuan hasiko dira egiten, eta hortik aurrera aldian behin ere egitea egongo da. Laster jakinaraziko dizkigute xehetasun gehiago (non egingo den, zein ordutan...), baina egiteko asmoa daukanak presta ditzala ondorengoak: 4 argazki (txikiak, koloretan), errolda-agiria (Udaletxean ematen dena) eta 12 euro.

Hona hemen euskaldun izateko nahia eta borondatea adierazteko beste era bat, guztion eskura.



San Telmo txikia konpontzen

Itxura txarra zuela-eta, santuaren irudi txikia berritzen ari dira



Aurtengo santelmoak bukatuta sortu zen San Telmo kaleko irudi txikia berritzeko asmoa. Santuaren irudiaz arduratzen den Imanolek Ismael Manterolarekin hitz egin zuen, eta Ismaelen bitartez Idoia Idigoras eta Rakel Nacenta ari dira lan horretan. Biak dira Arte Ederretan lizentziatuak.

Berritze lana nahiko aurreratuta dute. Berez, datorren urteko santelmoetarako bukatzeko eskatu zien Zumaiako Udaleko Kultura batzordeak. Ordurako, erraz bukatuko dutela aipatu digute Rakelek eta Idoiak.

Bestalde, esku artean duten irudiaren historia ezagutu nahiko lukete biek. Horretarako irudiaren jatorriari buruzko datuak beraiei jakinaraztea eskertuko lukete.

Oiartzuarrak nagusi

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa aurrera doa eta Arkaitz Goikoetxea nagusitu zen Zumaian jokatu zen final-laurdenetako saioan. Bigarren postuan beste oiartzuar bat geratu zen, Jon Martin hain zuzen. Oro har saio polita izan zen apirilaren 2an Maria eta Josen entzun ahal izan zena eta 400 entzule inguru bertaratu ziren.

Sei bertsolaritik bakarra zen zuzene-

an sailkatzeko eskubidea zuena eta Goikoetxea izan zen txartela eskuratu zuena. Bigarren geratu zen Martinek eta hirugarren sailkatutako Bixente Gorostidik ere puntuka sailkatzeko aukera handiak dituzte, ordea.

Arkaitz Goikoetxeak frogatu zuen beterano izateak zerbaiteko balio duela eta bera ibili zen ariketa guztietan erregularren. Keinuekin eta propio egindako geldialdiekin bertsoa janzten asko hobetu duela erakutsi zigen, gainera. Jon Martin gorabehera gehixeagorekin ibili zen, baina kartzelako lanean bakarka galtzeaz zuten maiteari botatako bertsoak gogoangarriak izan ziren.



Zuzenean sailkatuko dira 5 lagun, puntuen arabera beste 8 eta lehenik postua ziurtatuta zuten 5 lagunekin 18 bertsolariko taldea osatuko da, 3 final-lurrekotan banatuko dena. Estitxu Eizagirre gure kolaboratzaile "erdi zumaia" jadanik sailkatuta dago, Oñatin egindako saioan lehen postua eskuratu zuelako (zorionak!!). Jon Maia, berriz, Euskal Herriko txapelketako finalista izateagatik orain artean libratu den bertsolarietako bat da eta azaroaren 30ean saiatu beharko du finalerako txartela lortzen, Tolosako Beotibar pilotalekuan, arratsaldeko 5etan. Ea zumaia bultzadarekin txapelketa bikaina egiten duten biek ere!



BALEIKERen etorkizunari buruzko bilera

Urola bailarako herri guztietako albisteak, egunero eta euskaraz emango dituen egunkaria kaleratuko da urte hasieran. Tolosaldean hasi, eta Oarsoaldean eta Lea-Artibain jarraipena izan duen HITZA proiektua gure bailaran, Urolan hedatzeko pausoak ematen ari gara. Horregatik, gure aldizkariak eraberritu beharra izango du. Orain arte aldizkariak atalak izan direnetako batzuk aldatu egin beharko ditugu. Berriak sortu ere bai. Horretaz guztiaz, eta aldizkariak hitz egiteko, azaroaren 15ean Oxforden, goizeko 10:30etan bilera egingo dugu. Denok zaudete gonbidatuta.



Argia aldizkariaren 3 ale doan jaso ditzakezue oraindik

Urriko zenbakian Argia aldizkariaren kanpainaren berri eman genizuen. Txartela bete eta Argiaren 3 ale dohain jasotzeko aukera ematen du kanpaina horrek. Ba, oraindik ere garaiz zabilazte. Txartela bete, eta Argia aldizkariaren 3 ale etxean jasoko dituzue.

Gaizka Aranguren: "Gure benetako nortasun politikoa berreskuratu behar ditugu"

nabarralde

Nabarralde egitasmoaren kudeatzailea da Gaizka. Euskaldunon egitura politikoa Nafarroa izan zen orain mende asko. Ideia hori berreskuratu nahi du Nabarralde, eta Zumaian hitzaldia eman dute ideia hori zabaltzeko bidean.

Gaizka Aranguren iruindarra da. Kazetaritza ikasketak egin zituen, eta hainbat esperientzia bizi izan ditu. Besteak beste, kartzelan egona da intsumiso izateagatik. Gaur egun, Nabarralderen kudeatzailea da.

Zer da Nabarralde?

Nabarralde, batez ere, azken 120 urteotan baztertuak edo ahanziak izan diren hainbat erreferentzia kultural berreskuratu eta mahai gainean jarri nahi ditu. Horien artean, bereziki, gure herriaren kultura politiko enoratua. Afera honekin sensibiltzaturik zegoen jende talde batek egitura iraunkor eta profesionalizatua sortzeko apustua egin zuen 2001. urtean. Enpresa egitura eman zitzaion produktu kulturalak landu eta gizarteratzeko asmoz. Egun 28 bazkide gara. Horietariko bakoitzak 6.000 eta 24.000 euro bitartean eman du ekimenak aitzina egin dezan. Azken 9 hilabeteotan gure burua nonahi aurkeztu gabilta, eta ibilbide horretan 730 lagun bildu zaizkigu jadanik Sus-



tatzaile gisa. Sentsibiltate honekin bat egin, 6,5 euroko dirulaguntza eman hilean, eta guk sortzen ditugun materialak jasotzen eta hedatzen dituztenak dira. Iruñeko gure bulegoetan 3 lagun ari gara lanean burubelari: kazetari bat, historialari bat eta administrari bat.

Zuen burua aurkezteko lema hau duzue, oker ez banago: Euskal Herria, kontzeptu kulturala. Nafarroa: euskal estatua. Azaldu iezaguzu zein den lema horren muina. Azken ehun urteotan terminologia politikoaren izugarrizko prostituzioa eman da gure artean. Leloan bertan

diren bi hitz horiei dagokienez, erraterako, bere muina eraldatuta dute gehienetan. Euskal Herria euskararen herria izan da beti. Euskaraz ari den herria eta berau bizi den lurraldea ikuspegi kulturaletik eta hizkuntzaren ikuspegitik definitzen duena. Euskaldun bat dagoen tokian dago Euskal Herria.

Nafarroa, bertzalde, euskaldunon egitura juridiko-politiko historikoa izan da. XVI-XVII. mendetan azken hatsa eman zuena nazioarteko zubenbide subjektu politikoaren artean. Ordudanik, Espainia eta Frantzia izena hartuko duten bi Estatu-Nazioen gora-behera politikoaren arabera egi-

Endaiole Zumaia

TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

EGUZKI PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

BASUSTA ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

turatzen eta garatzen joan dira nafar lurraldeak, denak. Leialtasun historiakoak, koherentzia juridikoak eta eraginkortasun politikoak bultzatuta, Euskal Herriaren adierazpide politikoa "Nafarroa" kontzeptua dela aldarrikatzen dugu. Eta hau, ez da batere berria. Horixe bera defendatzen zuten XX. mende hasierako hainbat egilek.

Pil-pilean dago Ibarretxeren plana. Zer diozue horretaz? Nafarrek (foru erkidegoko nafarrez ari naiz) zer diote?

Ekialdeko nafarren artean iritzi oso desberdinak daude, mendebaldekoen artean bezala. Nabarralde ez du koiuntura politikoko gaiei buruzko iritzirik plazaratzen. Ez da bere lana. Hala ere, osotasun batetik begiratuta, azken 25 urteotan gertatu dena ikusi-

Nafarroa, euskaldunon egitura juridiko-politiko historikoa izan da

ta, ekialdea eta mendebalaren artean sortu den sakana sakonduz joan dela ikusita, niri, pertsonalki, ez zait iruditzen biderik egokiena sakan hori handitzen jarraitzea. Anacleto Ortueta bilbotarrak 1931an idazten zuena ekarri nahiko nuke gogora. Orduko Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiarako aurrikusten zen Estatutuaz ari zen: "Un fraccionamiento en la organización de gobierno entre nosotros (Nafarroa Garaia eta Hegoaldeko bertze hiru lurraldeen artean), ensancharía y profundizaría, hasta convertirlo en abismo insalvable, el foso que entre ellas ha labrado el imperialismo toledano".



Nire iritzi pertsonal eta apalean, Espainiaren arabera landatutako egitura administratibo banatzaileetako ordezkariak ezin dute osotasunerako eskaintza eraginkorrik egin eta, egin ez gero, Ortuetak profetikoki aurrikusten zuena areagotuko luke. Nik neuk bederen, pertsonalki, mendebaldeko lurraldeek eskaini omen dezaketen erreferentzialtasunean ez dut sinisten.

Euskal gatazka deitzen dena konponitzeko zein da zuen formula?

Euskal gatazka linguistikoa eta kulturala, nafar gatazka historiko-politikoaren ondorioa da. Euskaldunok modernitatearen hasieran gure Estatu-nazio propioa ukaiteko aukera galdu genuen; bon, egia erran, kendu ziguten, konkistatu baikintuzten. Inolako estrategia politiko zehatza baino lehenagoko bertze lan bat egin beharrean gaudela uste dugu: gure kultura politikoa eta, ondorioz, gure benetako nortasun politikoa berreskuratu.

Historiari erreparatuta, arrazoia izan dezakezue, alegia, Nafarroa Osoa dela euskal estatua. Baina praktikotasunetik, ez al da hobe euskal estatu hori EAE-tik eraikitzen hastea? (abertzaletasuna boterean dagoen eremu bakarra da, indar gehien duena ere bai, akaso).

Azken aspaldian ematen du "praktikotasuna" eta "menperatu gaituzten

estatuek gurean eraikitako egiturak abiapuntutzat hartzea" sinonimoak direla. Ez dut uste ekuazio hori horrela denik. Gauza bat da espainiar administrazio autonomiko batetik hainbat eskuduntza ahal bezain hobeki kudeatzea, eta bertze bat, arras desberdina, pentsatzea administrazio espainiarreko zati autonomiko horretatik bertatik abiatu daitekeela benetako inolako soberania politikorik. EAE eta NFK administrazio espainiarraren zati dira, onerako eta txarrerako. Gainera, berriro diot, ez da bakarrik hainbat jende ez dugula gure burua EAEko euskal ereduaren jarraitzailetzat ikusten, baizik eta Mendebaldeko zatia osotasunaren erakargarri moduan erabiltzea antzua dela. Bide horretatik segituz gero, nik neuk askoz ere errazago dakusat Nafarroa Garaia bere ildo soberanista propioa jorratzen Baxe Nafarroa, Xiberoa eta Lapurdira begira. EAEn integartzeko aukera ematen balidate, pertsonalki, ezezko biribila ematen nukeen.

Nabarraldekoak non aurki zaitzakezugu?

Zuzenena telefonoz deitzea da: 902 197 051. E-mailez kontaktatzeko: nabarralde@nabarralde.com , eta webgunea (oraingoz ingelesez soilik) www.nabarralde.com . Bulegoak, erran bezala, Iruñean daude: Curia Karrika 25, beheiti. 31001 - IRUÑEA.

Zerbait gehitu nahi izanez gero...

Dei apal bezain sutua egin nahiko nuke: gure erreferente historiko eta politikoei erreparatuz, norbere nortasun politikoari buruzko hausnarketa egin dezagula. Eta hori egin ondoren, egun, politikoki eraginkorrak izateko, ildorik egokiena zein ote den norberak pentsa dezala. Guzti horretan Nabarraldetik eskaini dezakeguna interesgarritzat edo lagungarritzat jotzen badu inork, gurekin harremanetan jar dadila. Ongi etorri beroa eginen diogu.



"Proiektu honek aurrera egingo badu, irakasle zumaiarrak behar dira euskaltegian"

Alaitz Larrañaga azkoitiarra da Zumaiako AEK-ko irakaslea. Ikasturte berria, euskaltegien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko arazoak, Zumaiako AEK-ren egoera, euskalgintzaren kontrako erasoak... Bada nahiko gai Alaitzekin hitz egiteko.

Lehenengo urratseko ikasleekin klasea bukatuta harrapatu dugu. Zumaiara heldu berria da, eta oraindik gure herriari tankera hartzen ari zaio.

Beno, Alaitz, hasteko aurkeztu zeure burua, zumaiarrek ezagutzeko aldera. Alaitz Larrañaga: Azkoitiarra naiz, eta lehengo urtean Zarautzen eta Zestean egon nintzen, AEKn, irakasle lanetan. Eta aurten hemen naiz, Zumaian.

Zumaiara heldu berria zara. Zer itxura hartzen diozu?

Alaitz: Ona. Ikasleen partetik ilusio handia ikusten dut, eta ni neu ere horrela nago, ilusioarekin. Urte batzuk beharko ditugu euskaltegia indartzeko, baina oso itxura ona hartzen diot.

Ikasturte berria hasita zaudete. Zenbat ikastaro eta ikasle dituzue aurten?

Alaitz: Bi talde ditugu. Bat lehenengo

urratsekoa, zazpi ikaslerekin. Etorkinak dira gehienak: Uruguaiakoa, Venezuelakoa, Argentinakoa... Madrilakoa ere badago, baina Iruñekoa eta Bilbokoa ere. Besteak hemengoak dira. Gehienak gurasoak dira.

Astean zenbat ordu ematen dituzte?

Alaitz: Astelehenetik ostegunera etortzen dira, arratsaldeko hiruretatik bostetara. Astean zortzi orduz egoten dira hemen.

Lanerako behar dutelako edo gustatzen zaielako ari dira euskara ikasten?

Alaitz: Gehienak umeekin euskaraz hitz egiteko ari dira ikasten. Etxeko hizkuntza transmisioa euskaraz egitea nahi dute. Beste motiboa da eguneroko bizimodua euskaraz egin nahi dutela: lagunekin, kalean...

Lehenengo urratsekoak izanda zer moduz moldatzen dira?

Alaitz: Zoratuta dabilta. Neuri esaten didate zoratuta nagoela. Gertatzen zaiena da euskaraz ezer ez dakitela, hona etorri artean ez dutela hitzik ere entzun. Ondorioz, gogorra egiten zaie, baina ari dira ikasten.

Bi talde daudela aipatu duzu lehen. Zein da bestea?

Alaitz: Bigarren taldea EGAKoa da. Hauena beste taldearekin alderatuta pixkat desberdina da. Nola edo hala EGA aterata nahi dute, eta tentsio apur bat egoten da.

EGAKo taldeak astean zenbat

"Gehienak umeekin euskaraz hitz egiteko ari dira ikasten"

ordu ematen ditu?

Alaitz: Besteak bezalaxe, astelehenetik ostegunera, bi orduko klaseak izaten dituzte. Guztira zortzi ordu. Hauek arratsaldeko zapietatik bederatzietara etortzen dira.

Aurten Udalarekin lortutako akordio-

ari esker, ikastaro bereziak emateko asmoa ere baduzue, ezta?

Alaitz: Bai, merkatariei, etorkinei eta gurasoei eskaintako ikastaro motzak izango dira. Laster gara hastekoak, baina eskaintza zabaldu behar da lehendabizi, eta horretaz Udala arduratuko da.

Azken urteetan, euskaltegietako ikasle kopuruak behera egin du. Aurten ere beheranzko joera hori izan al duzue?

Alaitz: Hemen behintzat, joera hori aldatu egin da. Aurten ikasle gehiagok eman dute izena, baina Zumaian klasea osatzeko behar den ikasle kopurua bildu ez denez, zapi kanpoan gelditu dira.



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

Udalarekin egindako hitzarmena aipatu dugu lehentxeago. Zer iruditzen hitzarmen hori?

Alaitz: Oso ona dela uste dut. Horri esker egoitza berria daukagu, eta ikastaro berriak emateko aukera ere bai. Euskararen eta euskaltegiaren egoera hobetzeko aurrerapauso handia da hitzarmen hori.

Akordioa ona dela diozu, baina ez al zaitu kezkatzen Udalarekiko nolabaiteko menpekotasuna sortzeko arriskuak?

Alaitz: Zumaian AEK dagoen egoeran ezin bestekoa dugu Udalarekin hitzarmena egitea. Euskaltegiak aurrera egiteko beharrezkoa da.

Beste herrietan egin al dituzte horrelako hitzarmenak?

Alaitz: Udal euskaltegia duten herrietan ez dute hitzarmenik egin, baina hemen eta Zestoan, adibidez, udal euskaltegirik ez denez, Udalak eta AEK-k akordioak egin dituzte.

Azkenaldian euskaltegien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko auzia pil-pilean dago. Zein da arazoa?

Alaitz: Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emateko irizpidea aldatu egin du. Orain ikasleka eman nahi ditu diru laguntzak, eta lehen taldeka ematen zituen. Orain arte bederatzi ikasleko taldea osatu behar zen laguntza jasotzeko. Orain hamaika ikaslekoa behar du izan, eta gainera orain arteko diru kopuru bera eman nahi du. Diru gutxiago ematea da, azken finean. Horregatik gelditu dira kanpoan lehen aipatutako zazpi ikasleak.

Euskara ikasi nahi dutenen kopuruak beheranzko joera duen garaian, harrigarri xamarra bada horrelako erabakiak hartzea, ezta?

Alaitz: Bai, dudarik gabe. Neurri eta erabaki ekonomikoak dira erabat, eta horrek ez du bermatzen jendea euskalduntzea.



“Neurri eta erabaki ekonomikoak dira erabat, eta horrek ez du bermatzen jendea euskalduntzea”

Euskalgintzak eta euskarak babes behar duenean horrelako neurriak hartzea bitxia da oso, baina tira. Euskalgintza eta euskara aipatuta, zer iritzi duzu jasandako erasoen gainean?

Alaitz: Euskal kutsua duen guztiaren aurka doaz, ikusten dutelako gauzak egiten ari garela. Gure kasuan, jendea euskalduntzen ari gara, eta horrekin Euskal Herria sortzen. Eta hori ez zaie komeni.

Euskal Herria dagoela behin eta berriz ukatu arren, hori kanporako jarrera besterik ez dela diozu.

Alaitz: Hori da. Euskara ikastea ez da inongo inposizioa, gizarteak eskatzen duen zerbait da. Beraiek ederki asko dakite hemen errealitate bat dagoela, eta hori kanpoan zabaltzea ez zaie komeni.

Eraso horiei aurre egiteko nork babestu behar gaitu?

Alaitz: Oraintxe da garaia erakundeetatik babesa eman eta sortzeko. Aurre egin behar zaie.

Euskaltegiekin duten jarrera ikusita, babes emateko prest daudela uste duzu?

Alaitz: Egia esateko nahiko ezkorra naiz horretan.

Behin eta berriz aipatzen dugun babesak nolakoa izan behar du?

Alaitz: Euskaltegiak babesteko, adibidez, beste era bateko politika edo irizpideak izan beharko lituzkete. Adibidez, hizkuntza politika aldatzea pauso bat litzateke. Euskararekiko duten jarrera ere aldatu beharko luke, ikusirik euskara dela Euskal Herriaren sena. Euskara

“Garrantzitsua da herrira ateratzea, jendeak ikus dezan herrian badituela euskaltegi bat eta euskara ikasten ari diren ikasleak”

ikasteko benetako beharra zabaldu beharko lukete. Adibidez, osasun arloan gure hizkuntzaren presentzia ez dago bermatuta.

Erasoen tamaina bereko babesa behar luke izan, hortaz. Alaitz: Dudarik gabe. Euskalgintza eta euskara erasotzen ari badira zerbaitegatik da. Gizarte baten izatea, Euskal Herriaren izatea horixe da, euskalgintza eta euskara. Batzuk orain ari dira jabetzen euskara garrantzitsua dela, euskarak nolako garrantzia duen erasoak jasan ondoren konturatzea nahiko tristea bada ere.

Beste hari bati helduta, euskara irakasteaz gain, Zumaia AEK-k ba al du bestelako ekimenak antolatzeko asmorik?

Alaitz: Momentuz, azaroaren 6an egingo dugun inaugurazio ekitaldia antolatzen gabiltza. Herri guztia dago ekitaldi horretara gonbidatuta. Bestelakoan, ez da erraza. Ni bakarrik nago hemen. Hala ere, egingo dugu zerbait. Nire asmoa da ikasleekin Santa Agedan eta Gabonetan kantatzera-edo ateratzea, baina horretarako ikasleen parte hartzea behar dugu. Garrantzitsua da herrira ateratzea, jendeak ikus dezan herrian badituela euskaltegi bat eta euskara ikasten ari diren ikasleak.



ALAITZ LARRAÑAGA azkoitiarrak 27 urte ditu. Irakasle lana oso gustukoa da, baita hizkuntzak ere. Ezin lan egokiagoa bilatu.



Zumaia AEK-n irakasle zumaiaarrik ez dago. Kezkatzekoa da hori?

Alaitz: Bai. Datorren urtean zumaiaarrik behar ditugu. Proiektu honek aurrera egingo badu, zumaiaarrik behar dira. Kaleko presentzia, herritarrek ezagutzea ezinbestekoa da. Ematen du betako irakasleak dituen ingeleseko akademia baten gaudela. Baina hasi bakarrik egin gara, eta denborarekin lortuko dugu herrian zabaltzea.

Nola erakarri daitezke zumaiaarrik euskaltegian lan egingo tera?

Alaitz: Aro berri batean sartu garela esanda, bai kanpora begira, bai barrura begira. Beherantz zihuan proiektua berriz ere goranzko bidean dagoela nabarmenduta. Herrian zabaltzea ezin bestekoa dugula azpimarratuta.

Herrian zabaltze horretan Udalaren laguntza ona litzateke, ezta?

Alaitz: Bai, baina hori ez da Udalaren lana. Nik uste dut jende askoren eskuetan dagoela lan hori. Herritarrek lan asko dute hor egingeko, baina batez ere, ikasleek. Ikasleek beraiek ere bizi pixkat eman behar diote euskaltegiari, ez dezatela pentsa akademia bat dela. Euskararekin harreman berezia izan behar dute.

Txori txikien kantua

Solfeoa eta instrumentuak jotzen irakasteaz gain, musikarekin gozatzen erakusten dute



TXORI TXIKI Musika Eskolan aurtengo ikasturterako 315 ikaslek eman dute izena. Adin guztietako jendea da, baina gehienak lau urte eta hamabost urte bitartekoak dira. Gutxiago dira izena ematen duten helduak.

Haurrei dagokienez, eskolaren jarduna bi arlotan banatzen da. Lau urte dituzten haurrek hiru urte ematen dituzte musika ikasten. Horretarako jokoak eta tailerrak erabiltzen dituzte

irakasleek. Behin zazpi urte beteta, instrumenturen bat jotzen ikasten has-teko aukera dute.

Instrumentu mota asko jotzen ikasi daiteke Zumaia Musika Eskolan. 2003-2003 ikasturtean, hauexek jotzen ikasteko klaseak osatu dira: pianoa, eskusoinua, trikitixa eta panderoa, gitarra klasikoa eta elektrikoa, txalaparta, perkusioa, biolina, klarinetea, saxofoia, tronboia, eta zeharkako flauta. Beste instrumentu batzuk ikasteko aukera ere eman du Musika Eskolak,

esaterako, oboea, baina klaseak osatzeko beharrezkoa den lauko kopurua bildu ez dutenez, ez dira ematen ari.

Aukera, bistakoa denez, egon bada-go. Baina haurrek zein aukeratzin dituzte gehien? Zein da arrakasta gehien duena? Musika Eskolako arduradunak, Marije Aizpuruak kontatu digunez, urtetik urtera instrumentuak aukeratzeko joera aldatu egiten da. Moda kontua omen. Aurten ikasle gehien bildu dituen klarinetea izan da. 26 ari dira lan horretan. Beste urte



batzuetan, berriz, pianoa ikasten jende asko ibili da. Aurten, aldiz, behera egin du pianoa ikasi nahi dutenen kopuruak. Orain urte batzuk trikitixak izugarritzko gorakada izan zuen, baina azkenaldian goranzko joera horrek beherantz egin du.

Instrumentu horiek guztiak jotzen irakasteko, eta lehen hiru urteetako jarduna erakusteko 17 irakasle daude. Sei zumaiarrak dira, gainontzeko hamaiak kanpotarrak.

Iragana eta etorkizuna

Aurtengo kontuak erreparatuta, orain aldira iristeko igaro behar den iragana aipatuko dugu. Musika Eskola 1990ean sortu zen. Beraien etxeetan musika erakusten zuten irakasleei denak leku batean bildu eta elkarrekin antzeko bat osatzeko deia egin zitzairen. Lehenengo bilgunea Eskola txikia izan zen. Handik Julene Azpeitia ikastetxera joan ziren, eta duela hamar bat urtetik oraingo lekuan daude.

Bai hasierako garaietan, baita orain ere, helburu batzuk ditu Musika Eskolak. Helburu horiek mailakatzen hasita, lehenengoa, dudarik gabe, ikasleei musika irakastea da. Bigarrena, musika-rekin gozatzen erakustea. Eta hiruga-

rena, eta batzuen-tzat garrantzitsuen, herriko Txistulari eta Musika Bandetarako musikariak ateratzea.

Azken helburu hau betetzea, hala ere, zaila da. Orain urte batzuk errazagoa zela esan digu Marijek. Lehen, orain dela hamar-hamabi urte, musikaz gain, eskolatik

kanpoko ekintza gutxi zituzten orduko gazteek. Kirola orduantxe hasita zegoen gure gizartean sartzen. Nolabait esateagatik, konpetentzia gutxiago zuen musikak ikasleak erakartzeko. Gaur egun, egoera zeharo aldatu da. Eta ez eskola kanpoko ekintzen ugaritzeagatik bakarrik. Ikasleen jarrera ere asko aldatu da. Gaur egun lehen baino ohikoagoa da musika ikasten hasi orduko uztea. Urtebete-edo egin, eta utzi. Horrela zaila da

herriko bandetarako musikariak egitea. Arazo horri eskolatik kanpoko ekintzen ugaritzea gehitzen badiogu, musikariak sortzeko helburua betetzea oso zaila da. Gaur egungo haurrek mila gauza dituzte, mila aukera: kirola, musika, hizkuntzak... Aukeraketa egiteko orduan jakina da haurrek nora jotzen duten. Gehien-gehienek kirola egiteko aukera hartzen dute.

Marije Aizpuruaren esanetan, benetakoa bokazioa eta gogoa duena bakarrik izango da musikari. Beste guztiek bide erdian gelditzeko arriskua dute. Bada, gainera, benetakoa gogoa izanda ere, arazo handi bat duena: etxean instrumenturik ez izatea. Horrek asko zailtzen ditu gauzak.

Hala ere, etorkizunari begira baikor da Marije Aizpuru. Oztupoak oztupo, aurten matrikulazio kopuruak gora egin du. Ez da datu txarra. Etor-kizunean ere txori txikiak kantuan jarraitu behar du, herrian musikak iraungo badu.



JOSEBA EGAÑA:

"MUSIKA ESKOLAK ONDO FUNTZIONATZEN DUELA USTE DUT"



Txistu irakaslea da Musika Eskolan. Zumaiaiko Txistulari Bandako zuzendaria ere bada. Txistua jotzen bizi dela esan daiteke.

Arratsalderoko klasea hasi aurretik hartu gaitu. Txistua maite duela antzematen zaio. Gaur egungo umeek txistuarekiko galdu duten maitasun hori barru-barruan gordetzen du.

Noiztik zara txistuko irakasle?

Joseba Egaña: Orain dela hamar urtetik.

Musika Eskolan noiztik ari zarete txistua irakasten?

Joseba: Neu hastearekin batera ekin genion txistua irakasteari. Aurtengoa hamargarren urtea da.

Txistua jotzen noiz hasi zinen?

Joseba: Bost urte nituenean, aitarekin hasi nintzen. Eta zazpi urterekin Txistulari Bandan jo nuen lehendabiziko aldiz.

Aurten zenbat ikasle dituzu?

Joseba: Hamabost. Kontua da martxotik ekaina bitartean, herriko ikastetxeetan txistua ikasteko eskaintza egin genuela. Ikastetxeetara joan, eta propaganda egiten ibili nintzen, txistua nola jotzen den irakasten, etab. "Txistu zaletasuna berreskuratuz" izena eman genion kanpaina horri. Hori egin eta gero, hirurogei eta hiru neska-mutilek eman zuten izena. Horietatik azkenean, hamabost gelditu dira.

Klaseak nola antolatzen dituzu?

Joseba: Astean behin etortzen dira, eta banaka ordu erdiko klaseak ematen dizkiet. Batzuetan ordu betekoa biri ematen diet, baina esperientziarekin ikasi dut hobe dela banaka ematea. Askok elkartzen direnean harrotu egiten dira.

Zenbat denbora behar du hasiberri batek txistua jotzen ikasteko?

Joseba: Zaila da esatea, baina txistua kalean jotzeko hiruzpalau urte behar dira.

"Zaia da gaur egungo gizartean dagoen pentsaerarekin harrobiko lan horrek fruituak ematea"

Musika Eskolaren lana egiteko moduarekin konforme al zaude? Zerbait hobetu al liteke?

Joseba: Gorabeherak badaude, irakasle bakoitzak bere pentsaera daukalako. Irakasleen kexa izaten da, ikasle kopuru gutxi daukagula, eta behar bezalako propaganda ez dela egin. Baino hori normala da. Bestela, Musika Eskolak ondo funtzionatzen duela uste dut.

Berez Musika Eskolak herriko bandaren, eta zuen kasuan Txistulari Bandaren harrobia izan beharko luke. Lan hori betetzen al du?

Joseba: Ez, lan horretan oso eskas gabilta. Ni beti saiatzen naiz ondo jo ez arren ere, Txistulari Bandan bat edo beste sartzen. Batetik, ikasleei poz hori emateko, eta bestetik, Txistulari Bandak irauteko. Hala ere, zaila da gaur egungo gizartearen dagoen pentsaerarekin harrobiko lan horrek fruituak ematea. Askok erraz uzten dute. Askok maite behar da txistua, bestela jai dago.

Musika Eskolara ikastera datozen batzuk etxean behartuta-edo etortzea ez da ona izango, ezta?

Joseba: Horixe ezetz. Horrelakoak badaude, eta ez da ona. Horietako askok eta askok urte bete egin, eta utzi egiten dute. Zorionez, gehienak zaletasuna dutelako etortzen dira, eta urte askoan jarraitzen dute.

Lehen, orain dela hamabost bat urte, ume askori ez zitzaizen gustatzen musika eta antzeko ekintzetara joatea. Gaur egun jarrera bera al dute umeek?

Joseba: Oraingoak okerragoak dira. Gogoan dut gure aitak Txistulari Banda hirurogei eta hamabost txistulari zituela utzi zuela. Eta denak zumaiarrak ziren. Gaur egun pentsaezina da. Eta ez Txistulari Bandan bakarrik. Koroan eta Musika Bandan ere jende gutxi daude.

"Txistua eta Bandan jotzen diren instrumentuak ikastea aukera hobea da"

Arazo kulturala da, eta ez Zumaiakoa bakarrik.

Arazo hori konpontzeko zerbait egin beharko da... Esaterako, ikastetxeetan duen garrantzia ematen al zaio musikari?

Joseba: Besteen lana ez dakit zenbatekoa eta nolakoa den, baina iruditzen zait duen garrantzia ez diogula ematen. Hala ere, arazoa sakonagoa dela uste dut.

Zer esan nahi duzu "sakonagoa" horrekin?

Joseba: Gizartearen arazoa da. Gaur egun guraso batzuen jarrera harrigarria da. Seme-alaba klasera etorri ez bada, gurasoek beraiek dira ez etortze hori justifikatzen dutenak: edo txokolatada zuela, edo ahaztu egingo zitzaiola... Harrigarria da. Irakasle denek esaten dute hori. Lehen ez zen horrela, gure etxean ez, behintzat.

Herrian musikaren inguruan dabilzan taldeen etorkizuna nolakoa da?

Joseba: Argitasunak ikusi nahiko nituzke, baina zoritxarrez ilun xamarra da. Gustatuko litzaidake talde horiek mantentzeko gauza berriak sortzea, baina ez dakit... Lehen aipatutakoa, ikastetxeetan egin duguna oso ideia ona da, baina ezin gaitezke urtero-urtero ikastetxeen ateak jotzen ibili.

Bukatzeko, nola erakarriko zenuke ume bat txistua ikastera?

Joseba: Txistua eta Bandan jotzen diren instrumentuak ikastea aukera hobea dela esango nieke. Etxeko instrumentuek baino irteera hobea dute. Gurasoentzat eta umeentzat probetxugarriagoa da kaleko instrumentuak jotzen ikastea. Gero, herrian eta kanpoan norberaren seme-alabak jotzen ikustea pozgarria da.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

ALTZARIAK OSTOLAZA AROEZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

GALDERA HONI ERANTZUN DIOZUE:

Zer iruditzen zaizkizu tabako paketeetan ipintzen hasi diren mezuak eta irudiak?

PAKETIEI PAKETIA

Ze nahi dezue esatia? Ez zatela ondo iruitzen tabako pakietetako kontu hoi. Ni enaiz erretzailia, ta aukeran gutxio erretzeko hobeto ikusten det pakete bakoitzian bi o hiru zigarrotan petardo bana sartzia.

Bueno, bizioa aspalditikan dakazuenak ez dakazue kulpalkan, egia da. Ba orduan, erretzia hain kaltegarria bada, zuzenian sar dezatela tabako artian maria pixkat, heriotza xamurragua izan dadin. Gaixki??

J. KE

Karidadeko Bentaren diskoa tokatzen bazait zigarro bat erretzen gustura asko entzungo ditut zumaiarren kantu ederrak.

Felix

"Erretzaille batzuei bost axola die paketeetan zer ipintzen duen. Erretzaille pasiboentzako berriz argiune bat izan daiteke, ea horrela beldur pixka bat sartzen zaien erretzaileri eta erretzeari usten dioten".

P. J.

Mezuen kontu hori itxura hutsa da. Atera kontuak gobernuak zenbat diru irabazten duten tabakoen zergekin. Horrekin dena esanda dago. Jokabide horrek izen bat dauka:

FALTSUKERIA

Aifer

Orain jarri dituzten mezuak jarri, edo bat ere ez jarri berdin-berdin izango da. Azkenean, nire ustez, erretzailerek erretzen jarraituko dugu, gobernuak tabakoen zergekin dirua irabazten, eta erretzen ez dutenak keajaten. Ezer ez da aldatuko.

Ainhua

Nei ondo iruitzen tzat. Naskauta nao leku itxiyeta erretzailien kulpaz kia tragatu biharraz. Ez tao eskubideik. Nik neurri gogorrauk hartuko nitun. Noruegan leku itxiyeta erretzia debekatu ein due. Oso ondo iruitzen tzat. Izorratzia beayen barrenak, bestienak pakian laga.

Antuan

Mezuen edukiak baino garrantzi handiagoa du erretzaileren pentsaerak. Erretzeari uzteko borondaterik ez badu, alperrik izango dira mezuak eta antzekoak. Norbere borondatea da kontua, baita inguruko eragina ere.

Arritxu

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

HAUXE DA HILABETE HONETAKO GALDERA:

- Espainiako alderdi nagusientzat independentzia lortzeko da.
- Euskal Herrian, Espainiaren menpe jarraitzeko dela diote batzuk.
- Demokratikoa da herriari hitza ematen diolako.
- Lurraldetasuna ez du bermatzen...

Ibarretxeren plana aurrera aterako al da?

Erantzunak helbide honetara bidali: baleike@topagunea.com



Erantzunak bidaltzen dituzuenon artean 41 IPUIN, JULENE AZPEITIA LEHIAKETA liburuaren bost ale zozketatuko ditugu. Bidali erantzunak!!



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa.
Balorazioak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etchezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Sardina zaharrari

Bertsolaritza

J OXE AGIRREK Zumaian aspaldi kantatutako hiru bertso dakartzagu gaurkoan. 1970 urte inguruan Aita Mari zine-aretoan Joan Joxe Uriahernaniarrak gai hauxe eman zion Joxeri; sardina zaharrari hiru bertso. Francoren diktadurapean ohituak geunden bi esanahiko hizketa zorrotzera, ze erremedio! Zentsurari eta zigorrari ihes egiteko, jendeak erraz ulertzen zuen erdizka esanda ere. Bertsolariek asko erabiltzen zuten hitz-joku mota hau, eta grazia aparta zuen eta du, gaur ere, ironiaren hizkera bikoitzak. Bertsotan II izeneko liburutik jaso ditugu bertsoak.



Zumaia Bertsolari Eskola

-1-

Hiru bertsotan eman nai ditut
Sardina zarren berriak
mami askorik ez dute
eta begiak gorriak
barrena motel dagoenean
ditugu bizigarriak
sagardo ona aukeran bada
kentzen dira egarriak

-2-

Sardina zarren zalea naiz ni
izatez amorratua
negu batean jaten bai nago
marka danak borratua
azkenerako gelditu nitzan
eztarria urratua
baina sardinaz klase batentzat
nik badaukat gorrotua

-3-

Egunen baten gu zapaltzeko
asmoak hartu zituzten
horregatik hoiak ez ditut
begi onetan ikusten
pentsatzen nago azkenerako
geu jango ote gaituzten
hoiak ez dakit gatz emanda
noiz jarri behar dituzten.

Marmitakoa

Sukaldaritza

L AU pertsonentzako osagaiak:
Garbitutako eta zatitutako
kilo erdi hegaluze

2 tipula handi
2 baratxuri-ale
2 piper berde
Piper gorri bat
Bi piper txorizero
Heldutako bi tomate
10 zentilitro olio
Kopa erdi koñak
Kopa erdi txakolin
800 gramo patata
Zopako ogia
Ura
Salda
Gatza



Beñat Fernandez de Arroyabe
Sukaldaria



Nola egin

Tipula txikituta kazuela batean frijitu. Gero, ondo txikitu ondoren, baratxuria eta piper gorriak eta berdeak gehitu. Ondo eginda daudenean, piper txorizeroaren mamia bota.

Ondoren, osagai hauek gehitu behar zaizkio: pepitak kendu eta zatituta tomateak; koñakak; eta txakolina. Zatitutako patatak bota eta gero, hegaluzearen saldarekin tapatu, gatz egin, eta momentu batean horrela laga, noizean behin egurrezko kutxara batekin mugituz.

Ondoren zopako ogia bota (aspaldi marmitakoa ogiarekin egiten zutenak gogoan). Dena eginda dagoenean, ondo garbitutako eta dadoen itxurarekin zatitutako hegaluzea gehitu. 10 minutuan dagoen bezala laga, eta ON EGIN!!

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 beheak
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Londresera 70 eurotan

HORIXE DA azkenaldian Internetek eman digun sorpresa onenetakoa, lehen hegazkinez bidaiatzea gutxi batzuen esku zegoen, baina orain ez da horrela, hainbat webgunetan sinestezinezko preziotan aurki ditzakegu hegaldiak.

Mota horretako hegaldiak eskaintzen lehena Go.com izan zen, egun EasyJet.com izenez ezagutzen dena. Honek Euskal Herrian Bilbotik Londreserako hegaldiak egiten ditu eta joanetorria 71eurotan egin daiteke, esate baterako. Hori bai, horrelako prezioak aurkitzeko hegaldiak astegunetan hartzea gomen datzen da, asteburutan beti igo egiten baitituzte prezioak.

Webgune honetan hegaldi bat erostea oso erraza da, sareko erabiltzaile arrunt batek inolako arazorik gabe egin dezake. Horretarako bost pausu besterik ez dira eman behar; lehenengoa nondik nora joan nahi dugun eta zein egunetan aukeratzea. Hori egin ondoren, aukeraturako egunetan dauden hegaldiak azalduko zaizkigu eta hauetako bat aukeratuko dugu. Hori egin ondoren aukeratu dugun hegaldia egiaztatzeko eskatuko digu, eta gero gure datu pertsonalak eta ordainketa egiteko txartel zenbakia ere bai. Eta azkenik hegaldia erosi dugunaren konfirmazioa jasoko. Horra hor bost pausutan gure hegaldia erosit!

Beste webgune bat hegaldiak oso merke edukitzen dituen RyanAir.com da. Honek ere antzeko prezioak eskaintzen ditu, baina Euskal Herrian Miarritzetik irteten dute hegaldiak. Hegaldien erosketa egiteko hemen ere oso erreza da prozesua.

Beraz badakizue, aitzaki bat nahikoa dugu orain hegazkinez txango bat egiteko...



Ibon Aizpurua
Informatika
ingeniarria



Zutik emakumea!!

Orain gutxi Emakundek EAE-ko emakumeen egoerari buruzko azterketa bat egin du. Bertan gai asko aztertu dituzte, baina bada bat arreta berezia deitu didana: emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak, hain zuzen ere. Datuak benetan kezagarriak dira, eta espero dezagun txosten hori ez dela inoren kajoian gordeta geldituko, eta hartuko dituztela egoera horri errotik erantzuteko neurriak.

Kanpotik begiratuta badirudi oso erraza dela tratu txarrak jaso eta jasan dituenak salaketa jartzea eta bikotekidearengandik behin betiko banatzea. Ikerketak dienez, ordea, egoera askoz haratago doa. "Biktimak indarkeriazko harremanetan denbora luzez egoten dira, 10 urte baino gehiago batez beste". Zoritxarrez salaketak jarri dituzten emakumeen %55ak 10 urte baino gehiagoz jasan du egoera hori. Isiltasun hori beldurrak eta babesik ezak sortua da. Gainera, kontuan hartu behar dugu tratu txarrak jasandakoen %10 eta %30 artean salatzen dela. Beraz, benetan datu beldurgarria da; tratu txarrak jasaten dituztenen kopurua ia hamar aldiz handiagoa dela esan nahi baitu. EAE-n urtean 1.000 emakume jartzen dituztela salaketak tratu txarrengandik; beraz, atera kontuak!

Gainera, salaketa jartzea oso zaila den arren, bizitzari berriz ekitea ere oso zaila da. Eta horretan eragin handia du emakumearen independentzia ekonomikoak eta bere emozio autonomiak. "Tratu txarrak jasotako emakumeen %57-78k beren bikotekideekin jarraitzen dute, eta Harrera zentroetara joaten diren biktimen %60 baino gehiago bere senarrarengana eta tratu txarreko egoerara itzultzen da".

Zoritxarrez, tratu txarrak gizartearen ispilu dira. Gizartearen egitura sozialaren isla. Tratu txarren eragilea ez da ez alkohola, ez bestelako drogaren bat, gizarte ustel hau baizik. Beraz, guztioi dagokigu gizon-emakumeen berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzea.

Informazio gehiago izateko jo helbide honetara:
www.emakunde.es/actualidad/violencia/inform_e.htm



Iñintz Linazisoro.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatua • Aseguruak
Finika Administrazioak

bonin aguirre 4. behea
20.750 zuzkila (guzkioa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Zumaiar Mundialak

Iñaki Osa Goikoetxeak eta Gotzon Enbilek bigarren aldiz jarraian irabazi dute Zesta-Puntako Munduko Txapelketa. Argazkietan bildu dugu dagoeneko AEBetan diren bi zumaiarren balentria. ZORIONAK!!



Prestatzen ari diren





Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Futboleko erromantikoak

Hondartzako Futbol Txapelketako lehenengo jardunaldiak jokatu dituzte

Iaz galipota zela-eta, bertan behera utzi behar izan zuten txapelketari aurten berriz ekin diote. 10 taldek eman dute izena. Zortzi Zumaia-koak dira; bat Zestoakoa; eta bestea Azpeitikoak. Hiru jardunaldi jokatu, txapelketa hau gehien irabazi duen Trapaia doa lehen postuan. Bigarren eta hirugarren, No Soluxion eta Oskarbi dira, hurrenez hurren.

Denak denen aurka jokatu ondoren, sailkapeneko lehenengo laurak Txapelketa izango dute jokoan. Bosgarrenetik zortzigarren postura bitartekoak, berriz, Kopa jokatu dute. Azken biak kanporatuak izango dira. Ligan eta Kopan honela izango dira partidak: Ligan, lehenengoak laugarrenaren aurka jokatu du finalerdia, eta bigarrenak hirugarrenaren kontra. Kopan, bosgarrena eta zortzigarrena lehiatuko dira, eta seigarrena eta zazpigarrena. Finalerdia horiek apirillean izango dira, eta Ligako eta Kopako final handiak apirilaren 17an, larunbatean, jokatu dira, santelmo jaietako aurreneko egunean.



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224



Pazoleta de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAYA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Iraundegi Elgoibar



Erribera kalea Tel. 943 861523



Amaia Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Arantza Aramendi

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

U H O L D E A K E T A E K A I T Z A K

Urriko azken egunetan denborale handi samarrak astindu gintuen: haize erauntsiak, eurijasak, olatu ikaragarriak... Betiko kontuak dira horiek. ZUMAIA HISTORIA liburutik hartutako argazki hauek ondo asko erakusten dute tarteka-tarteka nola astintzen duten gure herria denboraleek.



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

AITA MARI
KAFETEGIA


Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumai

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Emilio Perez
Elektrogalvanizazioa eta konposaketa

ADI

BASADI, 2 B
38750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax: 943 943 415
E-mail: adiele@euskalnet.net

ad **AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

**taberna
JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Santa-eskean Uztapiderekin

1935 urte inguru horretan izan behar zuen. Uztapide zenak hogeita bost / hogeita sei urte izango zituen. Gaztea izan arren, -sei hilabete eskas, bertsoak plazan kantatzen hasia zela-, bertsolari egina egon behar zuen ordurako, handik urtebetera, Euskadiko txapelketa nagusian, bigarren sailkatuko baitzen Txirrita zaharraren ondotik. Kontua da, Santa Ageda eguna iritsi, eta santa-eskean atera zela. Bai lagun-koadrila txukuna bilatu ere eske-ibilaldirako: Kortatxo bertso-lagun zuela, Urrustilgo Arsuaga duntziñeroa, Itxaiz Arruakoa danborrarekin, bi panderista, Madariagako beste bi pilarmonika-jotzaile, eta beste hamabi-hamahiru gazte, atzetik jarraitzen zietenak, denak galtza zuriak eta brusa zuriak jantzita.

"Gure etxetik Arrua aldera asi giñan. Endoia-gaña artu ta Arruara jetxi giñan" kontatzen du Uztapidek bere memorietan. Kortatxok eta biek txandan koplatzen omen zuten. Duntziñeroa, berriz, izugarria omen zen; hark jotzen zuen bezala, beste bati ere kostako omen zitzaion jotzea. Arruatik Ibañarrietara jo omen zuten. Eta gero handik, San Llorentera.

Gaur, nahita ere, ezin koadrila hark egindako ibilbidea berritu. Izan ere, orain ez dago biderik



Ibañarrietatik San Llorentera joateko. Zergatik? Bada, autopista egiterakoan, hango mendi guztia ebaki zutelako. Progresuaren adelantuko! esango du norbaitek, aspaldiko eibartarren euskara gaiztoa imitatuz. "Kaka zaharra" diot nik. Ez al zatekeen mila aldiz hobe, mendi barrena zulatu eta tunela egitea? Niretzat argi dago baietz, eta nago, makina bat jende egongo dela kartzelan kontratista haiek baino delitu gutxiagorekin.

Baina jarrai dezagun lagun-koadrila alegeraren ibilaldiarekin. San Llorentetik Beduara jaitsi, eta han, ibaia. "Irrioa zegoan, da zubirik ez" dio Uztapidek kezkatuta. Aurrera egingo bazuten, Urola zeharkatu behar, eta orduan komeriak. Eskazabalen bilatu omen zuten



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





erreka pasatzeko modua. Eskazabal baserriak Bedua eta Oikia bitartean egon behar zuen. Autopistak irentsiko zuen hura ere. Baina, utz diezaiogun Uztapideri berari kontatzen: "Eskazabalen pasa giñan emeretzi lagun, danak kabarra edo olako batean, ta ez dakit nola ez giñan uretara erori. Orduantxe berriz piztu giñan gu". Haren estuasuna oso erraz ulertzen da. Nork dauka ba gogorik, negu beltzean erriean bainatzeko? Eta bestetik, igeri egiten ere jakingo al zuen Uztapidek? Apustu ezetz.

"San Migel Artadi artu ta Zumaiara" dio Uztapidek jarraian. Beduatik gora abiatu, eta San Migelera bitartean, Txantonenean, Gorostiaga-aundin, eta Gorostiaga-txikin, kantatuko zituzten bertsoak, joko zuten musika, eta egingo zuten zurrut. San Migeldik behera, berriz, ohiko bideari heldu, eta han inguruko etxe bakanak alaituko zituzten.

Zumaiara jaitsi, eta errepidea. Bidegurutzean, Donostiako bidea eskuinera utzi eta ezkerrekoa hartuta, Urolaren gaineko zubi handira. Zubiaren beste aldean, etxe ilada luze bat, eta bertan, besteak beste, goardiazibilen koartela. "Guardiazibillak ere antxe zeuden bitarte artantxe, eta guk etxe danak koplatu giñuzen". Zumaiako jendeak oso eskuzabal jokatu omen zuen beraiekin, eta badirudi

goardizibilek ere zerbait eman zutela: "Etzan guri limosna eman bear etzigunik egun artan; danak diruarekin etortzen ziran orduan; entenitzen zutenak eta etzutenak".

Eguerdia gainean omen zuten, zubi txikira iritsi zirenean. Hura pasa, eta herriko kale-artean barrendu omen ziren. Jendea lehendik ere ez zen lo egongo, baina haien builarekin berriz esnatuko zen: "Bidekoa joaz erria dana esnatu genduan". Uztapidek ez du zehazten non bazkaldu zuten, -bazkaltzera joan giñan besterik ez du esaten-, baina asmatzera jarritz gero, ez dago burua asko nekatu beharrik, Justan, Xaarranekoan edo Hostal Zumaian bazkaldu izango zutela erabakitzeke.



Bazkalondoan, berriz, kalejiran hasi, eta ezin pauso bi eman, jendearekin estropezu egin gabe. Hartarainoko ikusmina sortzen omen zuen haien jardunak. "Ango ume koskorra eta ango atsoa! Ta gizonak ere bai. Nik uste det Zumaiaiko erria dana antxe zala. Bagenduan zeñek lagundurik eta zeñek etxeak erakutsirik. Jende tartean galdu egiten giñan". Egia esateko, kosta egiten da Zumaian halako jendetzarik imajinatzea. Ezta Río de Janeiro balitz ere!

"Eskandalo ikaragarria ateratzen genduan" dio Uztapidek bere memorieta. Gerora ere egun gogoangarri asko igaroko zituen arren, Zumaiaiko hura ez zitzaion sekula ahaztuko. Handik berrogei urtera ere, egun hartako xehetasun pila bat gogoratuko zituen: "Portal batean sartzen giñan, da bi mutil, gu koplutzen ari giñan bitartean, goiko pisuak pasatzen ibiltzen ziran, goiko tellatuaren ondoraño". Hain da kapritxosoa, izan ere, oroimena!

Baina jarrai dezagun gure koadrila alegeraren kalejirarekin. Otsailaren hiruan goiz ilundu ohi du gure parajeetan, eta egun hartan ere hala gertatu izango zen. Eta dirudienez, iluna egunargiari nagusitzearekin batera, Zumaiaiko kaleak zeharo urritu ziren jendez. Orduantxe gogoa parrandatxo egiteko, orduantxe sasoi zurruterako, orduantxe aldarte egokia dibertitzeko, orduantxe umorea elkarri zirika hasteko, orduantxe beroa zainetan edozertarako, orduantxe... eta zumaiarrek kale! "Gero ilundu zigun, ta orduan ziran komeriak. Lengo Zumaiaiko jende ura palta" dio Uztapidek, nahigabeturik. Izan ere, une hartan non ziren herriko kultur arduradunak, tabernari

eskuzabalak, merkatari jatorrak, edota gazte-koadrila enrollatuak? Auskalo. Auskalo non ezkutatu ziren denak. Enfin.

Guztiarekin ere, okerreza ez zen hura izan. Okerrena izan zen, hasierako eske-koadrila ordurako bi puska eginda zegoela, (derrotaren ondorengo paisaia), eta puska bakoitzak bere aldetik ekin behar izan ziola, baserririk baserri, etxerako bideari. "Nik suertea izan nuan: kamioz kamio baztarreko etxeak koplatura etorri giñan Arrua errekarano" kontatzen du Uztapidek.

Uztapidek suertea izan zuela argi dago, Kortatxoren taldeak egin behar izan zuen itzulbidea, askoz luzeagoa ez ezik, aldrebesagoa ere izan baitzen. "Endañeta ballara ori artuta, Marduetxe-berritik Olaberrian barrena, Presa-aldeetik Txarrantxolara, eta andik Ziolarra". Gauzak horrela, Uztapideren taldea Kortatxorena baino askoz lehenago iritsiko zen goizean abiatutako puntura. "Gu, aiek etorri ziranerako, an geunden Ziolarren". Ziolar hau Uztapideren auzoa zen, -biak ala biak Endoiako baserriak-, eta taberna moduan antolatua zegoen.

Orduko gizon-emakume haiek beste ezpal batekoak ziren, dudarik gabe. Nire kalkuluetan, Uztapideren taldea gauerdian iritsi zen Ziolarra; Kortatxorena, berriz, goizeko ordu txikieta. Etxera joan? Ezta pentsatu ere! Koadrila orduantxe berriro osatu, eta etxera zertara? Artistak izaki, beste zerbait asmatuko zuten. "An baratxuri-zopa jan bat egin genduan" dio Uztapidek. Hasteko, ez zegoen gaizki. Jarraian, barruak ondo berotu ondoren, kafe-konpletoa hartu, eta oster lanean hasi. Esku-soinua eta aho-soinua txandaka joz, -baten batzuek

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



dantzan ere egingo zuten-, kantu zaharrak kantatu, bertsoak bota, (batez ere bertsoak bota), kafea eta pattarra galanki edan, eta zigarroak bata bestearen atzetik erre, birika guztiak kiskali arte. Hura gozamina! "Urrengo

akordatu giñanerako, eguna zabaldu zuan" dio Uztapidek, eta nik ez dut sekula entzun ez irakurri gaupasaren laudorio samurragorik.

PEDRO ALBERDI

JATETXEA
LUBAKI
Baserri Auzoetako, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Galdona
burdindegia
Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330

GANBARA
Taberna
Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamendu

ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Vietnameko gerra aurreko garaiak

SAIGON, 1952. urteko udazkena. Vietnamek frantziar kolonialismoa gainetik kentzeko daraman borroka puntu gorenean dago. Egoera nahasi honetan, Alden Pyle gazte estatubatuarra bertara iritsiko da. Itxuraz, vietnamdarrei laguntzeko programa baten partaide da. Herriaren egoera hobeto ezagutzeko asmoz, London Times-eko kazetaria den Thomas Fowler-en lagun egingo da. Bide batez, Phuong izeneko haren maitale exotikoaz erakarria sentituko da. Hortik aurrera, hiru pertsonaia horiek ondorio larriak ekarriko dituen maitasun-istorio batean murgilduko dira.

Graham Greene idazlearen liburuan oinarrituta Joseph L. Mankiewicz-ek 1958an zinemara eramana zuen filma egokitu du Phillip Noyce australiarrak. Itxuraz melodrama erromantikoa da, azalean maitasuna, leialtasuna, traizioa, etab. ukitzen dituen, baina istorio honek badauka,

ordea, beste oinarri garrantzitsu bat: trama politikoa.

Pelikulak iraganaren (gutxira etorriko zen Vietnameko gerra) eta, tamalez, gaur egungo egoera gatazkatsuen (Afganistan, Irak...) jatorriari buruzko argibide batzuk azaltzen ditu..., ikusi nahi dituenarentzat, jakina. "Zergatik gorrotatzen gaituzte hainbeste?", galdetzen duen gizarte estatubatuarrek derrigor ikusi beharko lukeen film aparta.



El americano impasible
(The quiet american, 2002, USA-Alemania--Australia),
Zuzendaria: Phillip Noyce
Aktoreak: Michael Caine, Brendan Fraser, Do Thi Hai Yen
Azaroak 13, osteguna, 22:15ean

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Aborigenen kontrako erasoen kronika

AUSTRALIAKO

GOBERNUAK instituzio batzuk dauzka, haur aborigenak hezi eta etxeko zerbitzariak lortzeko politikaren barruan, betiere aborigenak zurien gizartean sartu nahian. Molly Craig haur aborigen bat da eta bere etxaldean bahitua izan ondoren, etxe horietako batetara eramane dute. Egun batean, ordea, ahizpa gaztea eta lehengusua hartu eta ihes egingo du. Bihotz eta amore hartuta, Mollyk zinez bidaia epiko batean eramango ditu beste neskak, betiere agintariak baino urrats bat aurrerago, Australiako landan zehar, 2.400 kilometro baino gehiagoan, uharte bitan banantzen duen untzien kontrako alanbre-hesia aurkitu eta etxera itzultzeko.

Gaur egun argi dago Australiako Gobernuaren politika hori herri aborigena guztiz triskatzeko izan zela, genozidioa izan zela, baina ez zen bukatu 1970eko hamarkadaren amaiera

Generación robada

(Mies vailla meneisyyttä, 2002, Finlandia)

Zuzendaria: Phillip Noyce

Aktoreak: Everlyn Sampi, Tianna Sansbury, Laura Monaghan, David Gulpilil, Kenneth Branagh

Sariak: Valladolid'2002: ikusleen saria

Azaroak 20, osteguna, 22:15ean
Aita Mari zinean

aldera arte. Australiako Gobernuak, egoskor, oraindik ez die barkamenik eskatu nahi biktimei.

Pelikula honekin Phillip Noyce zuzendaria (duela gutxi El americano imposible zuzendu duena) berriz ere jaioterrira itzuli zen, eta pelikularene izenburu bereko liburu batean dago oinarrituta. Liburuaren idazlea Doris Pilkington Garimara da, film honen protagonis-taren, Molly Craig-en, alaba.



LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazakoa z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

38



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Mego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santxo auzoa40